



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

## **UDALBATZAK 2019KO URRIAREN 17AN EGINIKO URGENTZIAZKO OSOKO BILKURA**

### **BERTARATUAK:**

Igor Zapiain Lizarribar EH BILDU  
Nagore Zubillaga Garmendia EH BILDU  
Luis Lasa Muñagorri EH BILDU  
Aitor Jimenez Iparraguirre EH BILDU

### **IDAZKARIA :**

*Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave*

Ibarran, **bi mila eta hemeretzi urriaren 17ean** goizeko hamaikak zirenean udalbatzak ez-ohiko bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Igor Zapiain Lizarribar alkate jauna izan zen, eta idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- Udal Osoko Bilkuraren urgentziaren deklarazioa onartzea**
- 2.-2019ko azaroaren 10ean ospatuko diren hauteskundeetarako mahaietan egongo diren kideak izendatzeko zozketa**

### **LEHENA:**

-

#### **1.- UDAL OSOKO BILKURAREN URGENTZIAREN DEKLARAZIOA ONARTZEA**

2019ko azaroaren 10ean burutuko diren hauteskundeetara mahaietan egongo diren kideak izendatzeko zozketa egitea ezinbestekoa da.

Azaroak 28, Errege Dekretu 2568/1986ak, Tokiko entitateen antolaketa, funtzionamendua eta erregimena arautzen duen erreglamendua onartzen duenak, honakoa adierazten du:

2019/10/17



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

## **Art. 79.**

Son sesiones extraordinarias urgentes las convocadas por el Alcalde o Presidente cuando la urgencia del asunto o asuntos a tratar no permite convocar la sesión extraordinaria con la antelación mínima de dos días hábiles exigida por la Ley 7/1985, de 2 de abril.

En este caso debe incluirse como primer punto del orden del día el pronunciamiento del Pleno sobre la urgencia. Si ésta no resulta apreciada por el Pleno, se levantará acto seguido la sesión.

Hau ikusirik, Idazkariak urgentziaren deklarazioaren onarpena adostu behar dela adierazten du.

Udalbatzak, 4 aldeko botorekin, (BILDU ) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea 2019ko urriaren 17an ospatuko den udalbatzaren urgentziaren deklarazioa

## **BIGARRENA**

### **2- 2019KO AZAROAREN 10EAN OSPATUKO DIREN HAUTESKUNDEETARAKO MAHAJETAN EGONGO DIREN KIDEAK IZENDATZEKO ZOZKETA**

Datorren 2019ko azaroaren 1ean ospatuko diren Hauteskunde Orokorrek direla eta bost hautesle mahaietako kideen zozketa eta izendapena egin behar da, Ibarra barruti bakarrari dagokiona, hiru ataletan zatituta.

Ibarra udalak 2019ko urriaren 17ko urgentziazko osoko bilkuran zozketa egin du udalkideen eta bitarteko idazkaria Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echaveren aurrean, horretarako sortua den programa informatikoaren bitartez.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren CN16-009 diktamina kontutan izanik, Udalbatzako aktak Ibarra Udaleko web orrialdean argitaratzen direnez, akta honetan ez dira mahaian egongo diren pertsonen nortasunak adieraziko. Alde batetik beraien onspen espresurik ez baitago eta gainera ez delako izendapena behin-betikoa; eskusak jarriz gero aukera dago beste ordezkari batek mahaian egon behar izatea.

Hauteskunde Erregimen Orokorra arautzen duen Lege 5/1985ak bere art. 26an adierazten du zozketa publikoa izan behar dela. Ibarra Udalak egintza honetan zozketa publikoa burutu du nahiz eta herritarrik ez aurkeztu Udalbatzako bilkuran.

2019/10/17



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren goizeko hamaikak eta hogeitaz direnean. Nik, idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2019/10/17

3